

2015eko ABENDUA

17.ZENBAKIA



# EDITORIALA

## ELKARREKIN, HOBETO

(BESTE Kultura, Hizkuntza, Ohitura... batzuk)

A  
L  
D  
I  
Z  
K  
A  
R  
I  
A

E  
H  
E  
G  
O  
L  
G  
U  
F

EUSKAL HERRIKO GORREN LAGUN ETA GURASOEN  
ELKARTEEN FEDERAKUNDEA

Azken urteotan, komunikabideetan informazio anitz ikusi eta entzun ditugu etorkinei buruz; etorkinek, arrazoiaren bat edo beste dela-eta jatorrizko herrialdeak utzi behar izaten dituzte, eta etorkizun hobe bilatu behar dute eurentzat zein familientzat.



Guretzat EZ da fenomeno berria, aspaldi gure taldean eragina duen errealitate bat baita; izan ere, **badira seme-alaba gorrak dituzten eta hona bizitzera etorri diren zenbait FAMILIA.**

Kulturak, hizkuntzak etab. oso desberdinak dituzte, eta horrek ahalegin handiagoa eskatzen digu haur horiek eskolan sartzeko orduan eta pertsona gorrek behar duten arreta jaso dezaten, taldeko gainontzekoek jasotzen duten bezala.

FEVAPASen ustez, **elkarbizitza eta truke horrek aberasten gaitu**, gure ikuspuntuak hobetzen ditu eta inguruan dugun mundua ezagutarazten digu.



Eutsi horri eta Urte Berri On

# FEVAPASEN 2015EKO PROGRAMA

## GIZARTERAKO JARDUERAK

Aisialdirako hezkuntza programak/ Euskadin entzuteko desgaitasuna duten haurrentzat eta gazteentzat.

MARTXOAREN 13tik 15era, entzuteko desgaitasuna duten eta entzuten duten **34 neska-mutilek** parte hartu zuten **Gorlizen (Bizkaia)** egindako jardueretan eta dinamiketan.

UZTAILAREN 1etik 10era, 7 eta 14 urte bitarteko 34 neska-mutil (gor zein entzule), **Cabanillasen (Nafarroa)** izan ziren eta hainbat jarduera, tailer eta jolas gauzatu zituzten.

Federazioko gazteen taldearen eta Bielorrusiako 15 gorren bisita izan zuten.

Aurten ere, esperientzia ona eta polita izan zen.

**10 GAZTE gorreko talde batek** (15 eta 25 urte bitartekoak) urtean buruan lan egin du zenbait talde-bilera, -eztabaida eta -topaketa programatu, gauzatu, koordinatu eta ebaluatzeko:

☞ **Martxoaren 13tik 15era txikiekin**, Gorlizen, haienezako jarduerak antolatu eta egin zituen.

☞ **Apirilaren 18an- Hitzaldia**, bi ordukoa Bilbon, ondoko gaiaren inguruan: “**Sare Sozialak – Erabilera eta erabilera okerra**” // Ementic-eko (Internet Segura y Educativa) profesional

batek eskaini zuen. Parte-hartzaileek parte-hartzea handia eta interesgarri aizan zen // Zeinu-mintzairako interpretea izan zuten

☞ **Uztailaren 4an** udako kanpamenduak bisitatu zituzten, eta egun osoan zuzendaritza hartu, eta txikientzat erreferentziazko irudi bihurtu ziren.

☞ **Urriaren 17an-** Apirilean hasitako **Sare Sozialen** gaiari berriro ekin genion oso **dinamika** berri baten bidez: Lego-ko figurekin, **Lego Serious Play izenekoekin**- “*Eskuekin eraikitzen denean, ezagutza eraikitzen da*”-Ementic-eko Itsasok eta zeinu-mintzairako interprete bik eskaini zuten // **Dinamikaren, emaitzen eta parte-hartzearen balorazioa ona izan zen.**

## BOLUNTARIOAK – Monitorea

Aipatutako jarduera horiek guztiak ezingo genituzkeen egin Fevapasen ditugun monitorea boluntarioen lanagatik eta lankidetzagatik ez balitz.

### **BALIOETAN HEZI- Kultur aniztasuna eta hezkidetzak PRAKTIKATU**

Monitorea trebatzeko ikastaroaren titulua da. Ikastaro hori **azaroaren 14an Donostian** (Arangji) egin zen. Entzuteko desgaitasuna duten **7 pertsonak** hartu zuten parte. Urtxintza Eskolako profesional batek eman zuen ikastaroa, eta bi zeinu-mintzairako interprete interpretazioaz arduratu ziren.



## FAMILIEN PROGRAMA

Aurten ere Fevapasek Elkarte Federatuak koordinatu ditu, familiei arreta egiteko eta laguntzeko lana batera egiteko.

Senideen eta desgaitasuna dutenen BIZI-KALITATEA HOBETZEKO, ondoko LAN KOORDINATUA egin da:



### Ondokoak landu dira:

Orientazio eta informazio eguneratu, objektibo, zabala eta zehatza  
Laguntza psikologiko eta emozional  
Familiantzako informazio eta trebakuntza.

### Baliabideak ondokoak izan dira:

Arreta zuzena eta kasu bakoitzaren jarraipena // Banakako eskakizunen kudeaketa  
Ama/aita eta ama/aita arteko laguntza // Hausnartzeko eta trebatzeko Taldeak  
Laguntza psikologikoa // Profesionalen arteko aldiari aldiari koordinazioa.  
Familiari arteko topaketak // Hitzaldiak eta trebatzeko eta informatzeko ekintzak  
Gizarterako jarduerak...



# Fevapas INFORMAZIOA

## Eusko Jaurlaritza - HEZKUNTZA

15.02.17 // Hezkuntza Berrikuntza / Gor diren Ikasleen egoera Lurralde Historiko bakoitzean

15.08.15 // LH- Elko Zuzendaritza/ Egoera, Jarraipena eta Protokoloak LH eta Elrako

15.12.01// Ikasle gorren jarraipenerako Batzordearen bilera

15.12.17 // EAEn Ikasle Gorra eskolaratzeari buruzko agiriak EGUNERATZEKO Lan Batzordearen bilera

## Eusko Jaurlaritza- OSASUNA eta OSAKIDETZA

15.02.25 - IC Eguna Jardunaldia Donostia Ospitalean

15.10.30 – Bilera Basurtoko Ospitalean, Osasun Saileko –Osakidetzako arduradunekin eta Osasun



15.06.15 - EUSTAT  
SS urteko inkesta

15.06.10 / 15.11.25/ EJ- Boluntariotzaren Euskal  
Kontseilua

### Ondokoan parte-hartze praktikoa:

Entitateen Komunikazio Plana jardunaldia  
"Elkarriketa" tailerra

Entitateetarako Komunikaziori Laguntzeko  
Planaren barruan daude biak

### EDEKAN lan egiten jarraitzen dugu —

Desgaitasunaren inguruko beste entitate batzuetako  
kideekin batera— gure **ESKUBIDEEN** alde.  
Hileko bileretan, batzorde sektorialetan eta gaiare-  
kin

Informazio gehiago zuen erreferentziako elkarteetan, Araban ASPASORen, Bizkaian ULERTUZen eta Gipuzkoan ARANSGIN

## FEVAPAS HEMEN..



15.11.03 –Emakumearen eta Desgaitasunaren  
XII. Foroa "Aisia Emakumeentzat ere bada"  
FEKOOREk Bilbon antolatutakoa

### ARARTEKOREN JARDUNALDIAK

15.06.19 – "Hiritartasun Eskubideetan euskal gazteek dituzten zailtasunak, Bizi-proiektuarekin lotutakoak" / Donostian

15.11.19 – "Haur eta Nerabeak Babesteko Lege berriak, Aldaketa nagusiak" / Bilbon

**EHU- Gizarte Lana / 15.11.12-13** Vitoria-Gasteizen  
Gizarte Politikako urteko XIX KONGRESUA  
"Ondoeza Estatuaren aurreko Ekintza Kolektiboa  
eta Lan psiko-soziala"



## ELKARTE FEDERATUETAN



### HAUR ETA NERABE GORREN ARTEAN IRAKURKETA SUSTATZEKO PROGRAMA



Fiapasen ekimenez, eta iaz egindako antzeko tailer batek izandako emaitza onak ikusita, ASPASOREk zenbait **JARDUERA** gauzatzen ari gara:

Literatura klasikoko hiru liburu aurkeztea – lpuin-kontalariak eta literatura-hizketaldiak – liburu bidaiari bat egitea – liburutegiak bisitatzea – Fiapas literatura-lehiaketan parte hartzea... - Irakurketa Bitartekarien Eskolak ere antolatzen dira, Tailerretan parte hartzen dituztenen gurasoentzat.

6 eta 8 urte eta 11 eta 14 urte bitarteko **HAURENTZAT / Guztira 15 neska-mutilek hartzen dute parte.**

Ez da **LAN BERRIA**, sistematizatuagoa baizik eta, gainera, arlo horretako lanak sakontzeko moduko zenbait berariazko saio ere gaineratu dira.

**BALORAZIOA** ona da; izan ere, haur eta gazteengan irakurketarako interesa pizten joango da modu ludikoan eta eskola-eremutik kanpo.

**Lehiaketaren emaitzei dagokienez**, jakinaraziko dizkizuegu, baina helburua ez da irabaztea, lan horretan ahalegin eta gogo handia jarri dugula onar diezaguten

### PERTSONA GORREN ANAIA-ARREBAK: LORTZEKE DAUKAGUN GAIA" TAILERRA

Urriaren 31n, **Verónica Posua** izan genuen gurekin. **Basurto Ospitaleko Osasun Metal eta Gortasun Unitateko PSIKOLOGOA** da, eta gor diren haurren anaia-arreben egoerari, bizipenei, sentimenduei eta abarrei buruko **TAILERRA** eskaini zigun.

Jardunaldiaren **GAIA** aukeratu zen zenbait familiak adierazi egin dutelakoentzuten duten seme-alabekiko kezka dutela.

Bertaratuko **GURASOEK** interes handia erakutsi zuten, eta gaian gehiago sakontzeko gogoekin gelditu ziren, baita euren esperientziak azaltzeko denbora izateko gogoekin ere.

**ULERTUZek** halako topaketak gauzatzen eta anaia-arrebeekin aldi berean lan egiten jarraitu nahi du; horretarako, eremu bat sortuko da, iritziak eman ditzaten eta haiek bezalako beste batzuekin askatasunez hitz egin dezaten.



### IRTEERA Abenduaren 19an, larunbata.

10:15ean **TABAKALERA**ko atean elkartuko gara.



Tabakalera **ERAIKINERAKO BISITA** gidatua, instalazioak ikusteko eta zer zerbitzu, jarduera, tailer etab. eskaintzen dituzten jakiteko.

**BAZKALDU** ondoren, **Txurdi-Urdinera PATINATZERA** joango gara (Anoeta pasealekua, 24) // 18:00ak arte, ordu horretan agur esango baitiugu elkarri



**FEVAPASEN  
IZENEAN  
EGUBERRI  
ON**



**LAGUNTZAILEAK**

